



Sagardo Apuruaren inaugurazioa, abenduaren 6an, Donostian. GIPUZKOAKO SAGARDOGILEEN ELKARTEA

SAGARDOTEGIEN IBILBIDEA

Euskal Herriko zazpi lurraldeetako 59 sagardotegi bere barnean hartzeaz gain, sagardoaren inguruko esperientzia, ekitaldi eta eskaintza multzo bat biltzen du Sagardoa Route egitasmoak. Euskal jatorrira itzultzea eskaintzen du.

Badira urte batzuk sagardo sektorea, produktuan berrikuntzak egiteaz gain, sagardoaren kultura sustatzen eta sektore turistikoan ere lanean ari dela. Euskal Herriko sagardogileen elkarten asmoa da ezagutaraztea sagarra eta sagastia, sagardotegia, txotx erritua eta baserria, «eta, hala, gure produktuari, gure ohiturei, historiari eta kulturari bere balioa ematea», Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak arduradunek azaldu dutenez.

Izan ere, sagardoa izan da hainbat mendetan Euskal Herriko produktu bakarra eta dolare-baserriak, milaka litro egiteko sortutako enpresa txikiak ziren, euskaldunen kontsumorako eta baita euskal marinelek baleontzietan nahiz garraioetan kanpora eramateko ere.

Hala, Sagardoa Route egitasmoak euskal jatorrira itzultzea eskaintzen du, sustraiak ezagutzea, sagardoa ardatz nagusitzat hartuta. «Sagardotegien etorkizuna lantzen duen proiektua da, sagardotegien, sagardoaren kulturaren baitako ekintzen eta inguruko eragile eta baliabideekin batera aurrera eramandako proiektua». Sagardoaren inguruko esperientzia, ekitaldi eta eskaintza multzo bat biltzen du, eta bere barnean hartzen ditu Euskal Herriko zazpi lurraldeetako 59 sagardotegi. www.sagardoa.eus helbidean aurki daiteke informazio hori guztia.

Sagardo Apurua

Urteko ekitaldi aipagarrien artean dago abenduan Donostian antolatzen

den Sagardo Apurua. «Bide horretan, gure egitasmo kutuna da Sagardo Apurua, bere barnean hartzen dituelako gure balio guztiak: sagardoaren presentzia, elkarlana inguruko eragile guztiekin eta tradizio modernoa».

Sagardo Apurua garai bateko baserri-sagardotegi baten berreraikuntza da. «Baserri honi bizitza ematen diogu hainbat eta hainbat ekintzaren bidez: herri kirolak, koktel lehiaketak, inguruko ostalarien arteko pintxo lehiaketak, dastatzeak, *maridajeak*, bazkari *maridatuak*, erromeriak, eta abar eta abar».

Hain zuzen ere, Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko sagardogileen elkarteetako ordezkariak Sagardoa Route proiektua aurkeztu zuten Sagardo Apuruaren